

Bilbao Hostel Coliving



bilbaohostel.eus

BILBOK MARTXAN JARRI DU GAZTE EKINTZAILEEI ETA PROFESIONALEI OSTATU EMATEKO LEHENENGO PROIEKTU PILOTUA

- ***Bilbao Hostel Coliving***, lanerako eta aisialdirako espazio komunak eta ostatua uztartzen dituen Euskadiko lehenengo proiektu pilotua da, Basurtu/Altamira auzoan kokatuta. EDE Fundazioak kudeatzen du proiektua, Bilboko Udalaren laguntzarekin. Honako hauek parte hartu dute ekimenaren aurkezpenean: *Juan Mari Aburto*, Bilboko alkatea, *Xabier Ochandiano*, Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Saileko zinegotzia eta zentroko arduradunak, *Jose Puyo*, EDE Fundazioko zuzendaria eta *Toñi Bueno*, *Bilbao Hostel*-ekoa.
- Unibertsitate-prestakuntza amaitzen edo egiten ari diren talentudun gazteek aldi baterako hartuko dute ostatua espazio honetan, bai eta Bilbon zientzia, teknologia edo arteen inguruko proiektu profesionalak edo ikerketak egiten dituzten proiektuak garatzen dituzten pertsonak ere.
- Proiektu berri honetan uztartuko dira *Coliving* eredia delakoa eta turismo-aterpetxea, baina ingurumenarekiko konpromisoari eutsiko diote, zerbitzuak digitalizatuko dira eta auzoarekiko espiritu konprometitu eta irekia mantenduko da, entitate eta saltokiekin batera lan eginda. Bestalde, ENPLEGU INKLUSIBOA sortzen jarraituko du Suspertu gizarteratze-enpresarekin.
- Lehenengo fasean hauek izango dira *Bilbao Hostel Coliving* proiektuan egongo diren azpiegiturak: lehenengo solairua (8 logela eta 12 oherekin) eta lan- zein jarduera-eremuak, eremu komunitarioak, espazio eskusiboak eta kanpoko espazioak. Besteak beste, “bideratzaile” bat egongo da, hau da, erabiltzaileen arteko harremana erraztu eta auzoko entitate, pertsona eta saltokien arteko loturak errazteko figura bat.

(Bilbon, 2021eko ekainaren 10ean).- Bilbok gazte ekintzaileei eta profesionalei ostatu emateko proiektu pilotu berri bat jarriko du martxan ostatua eta lanerako zein aisialdirako espazio komunak uztartzen dituen espazio batean. *Bilbao Hostel* aterpetxeak jarri du martxan ekimen aitzindaria, Basurtu/Altamira auzoko udal-instalazioetan. Ostatu-eredu berri bat da, European *Coliving* izenarekin ezagunagoa, eta

enpresa- zein gizarte-ekimen gisa planteatzean da, Covid-19ak ustekabearen eragindako pandemiaren eta turismoan izan duen eraginaren ostean.

EDE Fundazioaren mendeko Suspertu gizarteratze-enpresak kudeatzen du *Bilbao Hostel* instalazioa, eta Bilboko Udalaren laguntzarekin egiten du. Euskadin lehenengoz garatuko den proiektu pilotuaren bitartez, beste espazio bat bideratu nahi dute hiribildua unibertsitate-hiri izatearen aldeko apustuari aurre egiteko, non berrikuntza eta ekintzailatza bultzatu eta nazioarteko talentua erakarri nahi diren.

Honako hauek bildu dira ekimena aurkezteko ekitaldian: **Juan Mari Aburto**, Bilboko alkatea, **Xabier Ochandiano**, Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Saileko zinegotzia eta zentroko arduradunak, **José Puyo**, EDE Fundazioko zuzendaria eta **Toñi Bueno**, *Bilbao Hostel*-eko kidea.

PROIEKTU PILOTUA

Enpresaren proiektu pilotuaren xedea da **unibertsitate-prestakuntza amaitzen edo egiten ari diren** (masterrak, doktoretzak...) **eta zientzia, teknologia edo arteen esparruan talentua duten gazteei eta** aipatutako alorretan **Bilbon aldi baterako proiektu profesionalak edo ikerketa-proiektuak garatzen dituzten pertsonen behin-behinean ostatu ematea**. Pertsona horiek nahi dutelako parte hartu ahal izango dute proiektuan edo tokiko beste enpresa, ikerketa-zentro eta unibertsitate-zentro batzuetatik etorrira.

Bilbao Hostel proiektuaren *coliving* ereduaren aldeko apustuak formatu hibrido bat izango du; hau da, *coworking* eta *coliving* espazioak turismo-ostatu batekin uztartuko dira, bertan ostatu hartzen duten bi motatako pertsonen arteko bizikidetzak zabaltzeko. Hori horrela, **ingurumenarekiko konpromisoari** eutsiko zaio espazioan, eta jardun jasangarriak indartuko dira. Apurka-apurka **zerbitzuak digitalizatuko dira** garai berrietara egokitzeko, eta auzoarekiko **espíritu konprometitu eta irekia mantenduko da osatzen duten saltoki eta entitateekin batera lan egiten**. Bestalde, **enplegu inklusiboa sortzen** jarraituko du laneratzeko Suspertu enpresaren bitartez, lan-merkatura sartzeko aldi baterako zailtasunak dituzten pertsonak kontratatuz.

Proba pilotuak, gehienez ere, bi urte iraungo du, eta horien ostean proiektuaren jarraitutasuna eta garapena aztertuko dira. Azterketa horren bitartez, honako ezaugarri hauek egiaztatuko dira: tipologia horretako ostatu-formatu bat beharrezkoa den, udal-instalazioak *coliving* eredura bideratutako leku izatearen egokitasuna eta programaren bideragarritasun ekonomikoa, enplegu inklusiboko proiektuaren ezaugarriari eutsiz.

ESPAZIOAK ETA ZERBITZUAK

Proiektu pilotua turismo-aterpetxe batean dago, Kastrexana eraikinean, eraikin nagusiari lotua, non askotariko gizarte-zerbitzu eta entitateak biltzen diren, bai eta prestakuntzarako, berrikuntzarako eta ekintzailatzarako espazioak ere. Espazioak

egokitu ondoren, **lehenengo fasean, proiektu pilotuak solairu bat (8 logela eta 12 oherekin) eta lan- zein jarduera-eremuak, eremu komunitarioak, espazio eskusiboak eta kanpoko espazioak izango ditu.** Guztira, *coliving* eredura bideratutako 1.400 metro karratu egongo dira.

Coliving ereduaren erabiltzaileek, lo egiteko espazio bat, eremu komunak eta lanerako lekuak edukitzeaz gain, honako zerbitzu hauek edukiko dituzte eskura: **logelak garbitzeko zerbitzuak, garbitegi-zerbitzua, Internet konexioa, jantokia eta taberna-kafetegi zerbitzua, besteak beste.**

***Bilbao Hostel Coliving* proiektuaren beste berritasun garrantzitsu bat “Bideratzaile” figura izango da.** Bertan ostatu hartuko duten pertsona guztien integrazio eta bizikidetzaren onak bermatuko dute eta lan egiteko eta bizitzeko beharrezkoa den guztia edukitzea ere bai. Hauexek izango dira figura horren zereginak, besteak beste: egonaldiaren jarraipen pertsonalizatua, erabiltzaileen arteko komunitate-sentimendua bultzatzea, programatzen diren jarduerak guztietan parte hartzerako gonbidatuz, eta erabiltzaileak auzoko merkataritza-bizitzan txertatzea, eremuko saltokiekin harremanetarako sare bat garatuz.

HARREMANETARAKO:

www.bilbaohostel.eus

94 427 00 54

coliving@bilbaohostel.eus

BILBAO PONE EN MARCHA EL PRIMER PROYECTO PILOTO PARA ALOJAR A JÓVENES EMPRENDEDORES Y PROFESIONALES

- ***Bilbao Hostel Coliving*** es un proyecto piloto, primero en Euskadi, que combina alojamiento y espacios comunes de trabajo y ocio, ubicado en el barrio de Basurto/Altamira. Este proyecto está gestionado por EDE Fundazioa con el apoyo del Ayuntamiento de Bilbao. La presentación de la iniciativa ha contado con la presencia del Alcalde de Bilbao, *Juan Mari Aburto*, y del concejal de Desarrollo Económico, Comercio y Empleo, *Xabier Ochandiano*, y los responsables del centro, *Jose Puyo*, director de EDE Fundazioa, y *Toñi Bueno*, de *Bilbao Hostel*.
- El espacio albergará de forma temporal a jóvenes con talento, que estén finalizando o completando su formación universitaria, y a personas que desarrollan en Bilbao proyectos profesionales o de investigación en la ciencia, las tecnologías o las artes.
- Con este nuevo proyecto, en el que convivirán el denominado *modelo coliving* y el albergue turístico, se mantiene el compromiso con el medio ambiente, se digitalizarán los servicios, se mantendrá el espíritu comprometido y abierto al barrio, colaborando con las diferentes entidades y comercios, y seguirá generando EMPLEO INCLUSIVO a través de la empresa de inserción Suspertu.
- En una primera fase, *Bilbao Hostel Coliving* contará con una planta (8 habitaciones y 12 camas) y zonas de trabajo y de actividad, áreas comunitarias y espacios exclusivos y exteriores. Entre otras novedades contará con un “bideratzaile”, una persona encargada de facilitar la relación entre las personas usuarias y favorecer los nexos con personas, comercios y entidades del barrio.

(Bilbao, 10 de junio de 2021).- Bilbao pone en marcha un nuevo **proyecto piloto para alojar a jóvenes emprendedores y profesionales en un espacio que combina alojamiento y espacios comunes de trabajo y ocio**. La pionera iniciativa ha sido puesta en marcha por *Bilbao Hostel*, ubicado en instalaciones municipales en el barrio de Basurto/Altamira. Este nuevo modelo de alojamiento, más conocido a nivel europeo como *Coliving*, se plantea como una iniciativa empresarial y social, tras la irrupción de la pandemia provocada por el Covid-19 y su impacto en el turismo.

***Bilbao Hostel*, instalación gestionada por la empresa de inserción Suspertu dependiente de EDE Fundazioa, con el apoyo del Ayuntamiento de Bilbao, presentan este proyecto piloto, primero en Euskadi, con la vocación de sumar un espacio más en la apuesta de la Villa por ser una ciudad universitaria, donde se potencie la innovación y el emprendimiento y se atraiga el talento internacional.**

El acto de presentación de esta iniciativa ha contado con la presencia del Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, junto con el Concejal de Desarrollo Económico, Comercio y Empleo, **Xabier Ochandiano**, además de los responsables del centro, **José Puyo**, director de EDE Fundazioa y **Toñi Bueno**, directora de *Bilbao Hostel*.

PROYECTO PILOTO

El proyecto piloto empresarial está destinado a **alojar de manera temporal a jóvenes con talento en el ámbito de la ciencia, las tecnologías o las artes que estén finalizando o completando su formación universitaria** (masters, doctorados...) y **personas que desarrollan en Bilbao proyectos temporales profesionales o de investigación** en los ámbitos mencionados. Estas personas podrán acceder al proyecto por iniciativa propia o derivadas de empresas locales, centros de investigación o centros universitarios.

El modelo de *coliving* de *Bilbao Hostel* apuesta por un formato híbrido en el que convivan los espacios de *coworking* y *coliving* con el hostel turístico, ampliando el modo de convivencia entre ambos tipos de huéspedes. Así, el espacio conservará su **compromiso con el medio ambiente** reforzando las prácticas sostenibles, progresivamente **digitalizará sus servicios** adaptándolo a los nuevos tiempos, mantendrá su **espíritu comprometido y abierto al barrio, colaborando con las diferentes entidades y comercios** que lo componen, y seguirá **generando empleo inclusivo**, a través de Suspertu, empresa de inserción laboral, con la contratación de personas con dificultad transitoria para acceder al mercado laboral.

La prueba piloto tendrá una duración máxima de dos años tras los que se analizará la continuidad y desarrollo del proyecto. Este análisis constatará si existe necesidad de un formato de alojamiento de esta tipología en la ciudad de Bilbao, la idoneidad de estas instalaciones municipales como un lugar orientado al modelo de *coliving* y la viabilidad económica del programa manteniendo su naturaleza de proyecto de empleo inclusivo.

ESPACIOS Y SERVICIOS

El proyecto piloto está ubicado en el albergue turístico y en el edificio Kastrexana, anexo al primero, donde se encuentran diferentes entidades y servicios sociales, así como espacios de formación e innovación y emprendimiento. Tras la adecuación de los espacios, **en una primera fase, el proyecto piloto contará con una planta (8 habitaciones y 12 camas) y zonas de trabajo y de actividad, áreas comunitarias y**

espacios exclusivos y exteriores. En total 1.400 metros cuadrados destinados al modelo *coliving*.

Las personas usuarias del *coliving*, además de disponer de su espacio de alojamiento, zonas comunes y de trabajo, tendrán acceso a **servicios de limpieza de habitaciones, lavandería, conexión a internet, comedor, servicio de bar-cafetería, entre otros.**

Otra de las novedades importantes de *Bilbao Hostel Coliving*, es la figura del “Bideratzaile”, cuyo objetivo es garantizar la buena convivencia e integración de las diferentes personas alojadas y de que dispongan de lo necesario para trabajar y vivir. Entre sus funciones destacan el seguimiento personalizado de la estancia, promover el sentimiento de comunidad de las personas usuarias invitando a participar en todas las actividades que se programen y la inclusión de las personas usuarias en la vida comercial del barrio a través de una red de contactos con los diferentes comercios de la zona.

CONTACTO:

www.bilbaohostel.eus

94 427 00 54

coliving@bilbaohostel.eus